


IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA



IGARTUBIZIA ANA MENDIGURENen ESKUTIK

Ana Mendiguren, Igartubeitin 1961ean jaioa, bere familiarekin Igartubeitin bizi izan zen 1990an baserria utzi eta ondoan egindako etxe batera pasa ziren arte. Hauek dira 500 urtetan zehar bizirik mantendu zen baserri batetako azken familiko bizilagunetako baten bizipenak.

(...) Bizitzan sarritan bezala, suertatzen zaizkigun zenbait egoeretara egokitzen joan beharrak edo izanak eraman gintuen Igartubeiti baserrian bizi izan ginen azkenak izatera.

Baserria erosteko aukera izan genuenean 2 senideren artean eskuratu genuen (alabak gurasoekin bertan bizi zena eta semeak, nahiz eta kanpoan ezkondu bizi izan, baserriko lanen ardura bere gain zeramanak).

Beste alde batetik, aita hil eta alaba ezkondu zenean, ezin ama bakarrik utzi eta bertan gelditu ginen... baina etxebizitza oso zaharkiturik zegoen eta bertan bizitzeko baldintzak oso eskasak ziren, are gehiago lehenengo alabaren jaiotza iritsi zenean.

Gogoratzen duzu Igartubeititik atera zinen azkeneko aldia zaharberritze lanak hasi aurretik?

1990ko irailean alde egin genuen nahiz eta egunez egunero bertara joan, gaez hutsik geratzen zen. Momentu hortan ez zegoen oraindik Igartubeitiren etorkizuna zehazturik.

Fermin Leizaolak eman zuen lehenengo pausua kontserbazio atalean. Hasiara hartatik urte dexente igaro ondoren eta proiektu desberdinak aztertu ondoren, iritsi zen unea non Foru Aldundiak baserria erosi zuen

Zer sentitu zenuten zaharberritu behar zela jakin zenutenean?

Poza, geure kaxa, baserria berritzea ezinezkoa bait zen.

Dolare baten barruan bizi zinetela esan daiteke.

Dolarerik ez zen ikusten eta ez ginen hortaz konsziente, nere ustez kontu hori lehenengo aldiz Fermin Leizaolari, Ramon Ayerzari, Manu Izagirreri... entzun genien, baserria aztertzen hasi zirenean.

Zein zen baserrian gustokoen zenuen gauza?

Lasaitasuna

Zein da Igartubeitik memoriara ekartzen dizun irudia?

Gaztetasuna eta ilusioa baserriko bizitzari lotua.

Anekdotaren bat?

Baserria aztertzeraz kanpotik etorri ziren zenbaitzuk ganbaran hanka zintzilik zutela gelditu zirela, bertako egurra zegoen egoera zela eta.

Nolako da orain sentsazioa Igartubeitira sartzean?

Kontraesanekoa, alde batetik pribilegiatuarena mantendu delako, baina bestetik arrotzarena, guk bizi izan genuen egoeratik oso urrun gelditzen zaiguna.

Sarri etortzen al zara?

Ondoan bizi gara eta gainera baserria kanpotik barrura bizi dugun zerbait bezala ikusten dugu.

Zer da gaur egun gehien gustatzen zaizuna?

Oso txukun eta zutik egotea.



Ana Mendiguren bere osabarekin baserri barnean 1969an